

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak errefuxiatuak hartzeko prozesuetan jarduteko eta sentsibilizatzeko proiektua bultzatu du

Giza Eskubideetako lehendakariordeak, Miguel Laparrak, eta Gurutze Gorriaren Nafarroako lurralde-koordinatzaileak, Juanjo San Martínek, "Errealitate berriak; errefuxiatuentzako laguntza soziorabala eta sentsibilizazioa" izeneko proiektua aurkeztu dute

Ostirala, 2017.eko irailak 1

Erakunde sozialen bitartez inklusiorako jarduerak garatzeko pasa den otsailean onartutako diru-laguntzaren deialdian kokatzen da proiektua; aurren, errefuxiatuei laguntzeko akonpainamendu sozialeko prozesuak indartzera bideratutako modalitatea ere jarri da.

Proiektua Nafarroako Gurutze Gorriak garatzen du eta Nafarroako Gobernuak finantzatu du 40.000 €-ko laguntzarekin. Proiektua funtsezko bi jardura-eremutan kokatzen da: herritarren sentsibilizazioa eta errefuxiatuen akonpainamendu soziorabala.

Proposatutako jarduerak Iruñean, Lizarran, Tafallan eta Tuteran garatzen dira.

Proiektuaren helburua da Nazioarteko Babesaren eskatzaileak eta onuradunak laneratzea eta gizarteratzea erraztea eta komunitate mailan sentsibilizazioa lantzea inklusio-prozesuak erraztearren.

Proiektuan banako nahiz taldeko jarduerak jasotzen dira, gai ezberdineko tailerren bitartez: alaketara egokitzea, jabeakuntza eta erabakiak hartzea, auto-estimua, erantzunkidetasuna eta norberaren ezagutza, besteak beste.

Bestalde, kultura arteko jardura ezberdinak egingo dira, dibertsitatea sentsibilizatzeko ekintzen bitartez lantze aldera.

Bestelako jardura-ildoak

Gaur aurkeztutako proiektuaz gain, Nafarroako Gobernuak beste jardura-ildo batzuk ezartzen ari da errefuxiatuak hartzeko; tartean, guztira 110 plazako harrera-sistema garatzea (60 Gurutze Gorriak kudeatuak), sentsibilizatzeko hainbat ekintza, laguntza humanitarioa indartzea eta Foru Komunitatean harrera-prozesuak hobetzea. Ildo horretan, 2017. urtean zehar, "Nafarroa errefuxiatuekin" izeneko sentsibilizazio-kanpaina burutu da. Halaber, laguntza humanitarioa indartu da, eta, era horretan, 200.000 €-ko partida espezifikoak jarri da asilo-kontuetan lan egiten duten GKEen lana bultzatzeko. Nafarroako Gobernuak 2017an errefuxiatuentzat jarritako zenbatekoa 400.000 € ingurukoa izango da. Horrez gain, Nafarroako Gobernuak 300.000 € jarri ditu saharar herriari laguntzeko.

Bestalde, harrera-prozesuak hobetzeko eta indartzeko asmoarekin, Nafarroan errefuxiatuak hartzeko prozesuaren segimendurako batzordea osatu da; bertan, ondorengoek hartzen dute parte: Nafarroako Gobernua, Gurutze Gorria eta CEAR, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, FNMC, errefuxiatuak dituzten tokiko erakundeak, herritarren ekimenak, bestelako mugimendu sozialak eta errefuxiatuen ordezkaritza. Era berean, batzorde horren barnean, talde eragile bat sortu da Nafarroan harrera-prozesuak hobetzeko helburuarekin, eta Administrazioaren, ziurtatutako erakundeen, herritarren ekimenen eta errefuxiatuen arteko koordinazio eta lanerako protokoloa garatzen ari da.

2015eko urriaz geroztik, Nafarroak 112 familia-unitate hartu ditu; hots, guztira 255 pertsona, eta horietatik 185 Nafarroako Gurutze Gorriak hartu ditu.

Jatorriari dagokionez, honako hauetako familia-unitateak dira nagusi: Venezuela (%19,27) Armenia (%14,68) eta Ukraina (%13,76). Siriako familia-unitateak kontuan hartuta, hartutako familia guztien %8,26a osatzen dute.